

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

## Foru Aginduak

## NEKAZARITZA SAILA

4742

**109/2013 FORU AGINDUA, irailaren 16koa, onartzen dituena deialdia egitea eta kreditua gordetzea, aparteko almazariak erosteko 2013rako laguntzetarako.**

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 29ko 31/2010 Foru Dekretuz (azaroaren 27ko 70/2012 Foru Dekretuz aldatua), aparteko almazariak erosteko laguntzen oinarriak onartu ziren.

Aipatutako dekretu arautzaile horren 9. artikulua arabera, eskaerak aurkezteko epea eta modua arautzen dituena, urtero laguntza deialdi bat onartuko da. Deialdian eskaerak aurkezteko epea adieraziko da eta dirulaguntzak emateko erabiliko diren kredituak.

Beharrezko ikusten da onartzea aparteko almazariak erosteko 2013rako laguntzetarako deialdia.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honakoa  
XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Aparteko almazariak erosteko 2013rako laguntzen deialdia onartzea. Hona hemen xehetasunak:

- Eskaerak aurkezteko epea: HAMABOST egun natural, foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

- Kreditu erreserba: 3.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2012ko ekitaldirako (2013ra luzatuak) gastu aurrekontuaren "Zaldi aziendak hobetzeko laguntzak" izeneko 40.1.02.43.00.750.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 13.5.13.105.3108/000).

- Laguntzen zenbatekoa: gehienez ere 3.000,00 euro emango dira dirulaguntzatan deialdi honen baitan, eta dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzte laguntza eskatzaileei.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 16a.- Nekazaritza Saileko foru diputatua, FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS.- Nekazaritza zuzendaria, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

4751

**431/2013 FORU AGINDUA, irailaren 5koa, onartzea bete egin direla foru honetan jarritako baldintzak: 357/2013 Foru Agindua, uztailaren 23koa, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuarena, zeinaren bidez behin betiko onartu baitzen espediente aldaketa puntuala egiteko Langraiz Okako bizitegitarako hiri lurzoruko R1-LS4 jarduera unitateari dagokienez.**

## I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 357/2013 Foru Aginduz, uztailaren 23koa, behin betiko onartu zen Iruña Okako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espediente, Langraiz Okako bizitegitarako hiri lurzoruko R1-LS4 jarduera unitateari dagokionez.

## Disposiciones Administrativas

## Órdenes Forales

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

4742

**ORDEN FORAL 109/2013, de 16 de septiembre de 2013, que aprueba la convocatoria y reserva de crédito para las ayudas destinadas a la adquisición de reproductores selectos de ganado equino para el año 2013.**

Por el Decreto Foral nº 31/2010, del Consejo de Diputados de 29 de junio, modificado por el Decreto Foral 70/2012, de 27 de noviembre, se aprobaron las bases de concesión de ayudas a la adquisición de reproductores selectos de ganado equino.

El Artículo 9 del Decreto regulador, señalado anteriormente, establece que anualmente se aprobará la correspondiente convocatoria de ayudas que incluirá el plazo de presentación de solicitudes y los créditos destinados a la resolución de las mismas.

Considerando que es necesario aprobar la convocatoria para 2013 de las ayudas a la adquisición de reproductores selectos de ganado equino.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,  
DISPONGO

Primero.- Aprobar la convocatoria de las ayudas a la adquisición de reproductores selectos de ganado equino para el año 2013 con arreglo al siguiente detalle:

- Plazo de presentación de solicitudes: QUINCE días naturales desde el día siguiente al de publicación en el BOTHA de la presente Orden Foral.

- Reserva de crédito: 3.000,00 euros, con cargo a la partida 40.1.02.43.00.750.00.01 "Ayudas a la mejora del ganado equino" del Presupuesto de gastos de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2012, prorrogado para el 2013, con referencia de contraído 13.5.13.105.3108/000.

- Cuantía de las Ayudas: La cuantía máxima de las subvenciones a conceder en el marco de la presente convocatoria es de 3.000,00 euros, cantidad que será dispuesta y abonada en su momento oportuno a favor de las solicitudes de ayuda que reúnan los requisitos exigidos en las bases reguladoras de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 16 de septiembre de 2013.- Diputado foral de Agricultura, FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS.- Director de Agricultura, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

4751

**ORDEN FORAL 431/2013, de 5 de septiembre, aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 357/2013, de 23 de julio, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente del expediente de la modificación puntal de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Iruña de Oca en la Unidad de Actuación R1-LS4 del Suelo Urbano Residencial de Nanclares de la Oca.**

## I.- ANTECEDENTES

Primero.- Por Orden Foral 357/2013, de 23 de julio, quedó definitivamente aprobado el expediente de modificación puntal de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Iruña de Oca en la Unidad de Actuación R1-LS4 del Suelo Urbano Residencial de Nanclares de la Oca.

Bigarrena.- 357/2013 Foru Agindu berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, xedatu zuen horiek zuzendu eta gero espedientea Foru Aldundiari aurkeztuko zitzaiola, berriro ere jendaurrean ipini beharrik gabe, haren eragite indarra aitortzeko eta eginbidetu eta argitara emateko.

Hirugarrena.- 2013ko abuztuaren 23an, espedientearen testu bateratua sartu zen Aldundi honen Erregistroan.

## II.- OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa azterturik, egiaztatzen da bete egin direla aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak.

Horregatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe  
XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Betetzat hartzea foru honetan jarritako baldintzak: 357/2013 Foru Agindua, uztailaren 23koa, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuarena, zeinaren bidez behin betiko onartu baitzen espedientea aldaketa puntuala egiteko Langraiz Okako bizitegitarako hiri lurzoruko R1-LS4 jarduera unitateari dagokienez.

Bigarrena.- Ebazpen hau, hirigintza arautegiarekin batera, ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera”

## ARAUTEGIAN ALDATU DIREN ARTIKULUAK

### 187.14.- R1-LS4.

187.14.1.- Antolamendua:

a) Antolamendu mota: ezarria.

b) Antolamendurako arauak: Jarduketa unitate hau Langraiz etorbidearen hegoaldean dago. Muga hauek dauzkan eremu batean dago: iparraldean, Langraiz etorbidea; hegoaldean, Zallurtegui kalea; ekialdean, El Calero kalea; mendebaldean, Los Molinos kalea.

Asmoa eremu zona bakar bat sortzea da eta bertako eraikinak bloke irekia motakoak izatea; aurrealdea El Calero kaleari begira egongo da, eta kale horren trazadura aldatuko da, erosoagoa izan dadin eta zirkulazioa bi norabideetako izan dadin. Unitateko gainerako lurra askatu egingo dira eta eremu libre handia sortuko da gaur egun dagoen urmaelaren, Molino de Arriba (edo urmaelekoa) esaten zaionaren eta monumentu/monumentu multzo gisa sailkatutako karobiaren inguruan; horrela elementu horiek birgaitu edota lehengoratu ahal izango dira.

Proposatzen da etxebizitza eraikinetako beheko solairuan baimendutako etxebizitzetaz gainera eremu pribatuak eta hirugarren sektoreko lokalak egotea, eremu libre publikoa atseginagoa izan dadin. Eraikin guztietan solairu hauek egongo dira baimenduta: BS+II+A. Baimendutako gehieneko lerroakurak N06', N07' eta N08' planoetan finkatu dira. Eraikinen artean bi pasabide egongo dira eremu librearekin lotzeko: bata R1-LS5 jarduketa unitatean sortutako tarteko eremu libreria helduko da eta beste eremu libre publiko berrira helduko da Zallurtegui eta El Calero kaleen gurutzagunetik; nolahi ere, bide hauen kokaguneak eta neurriak iradokitzen jo behar dira: etxebizitza blokearen diseinuaren arabera moldatu daitezke.

187.14.2.- Erabileren araubidea:

Unitateko berezko erabilera etxebizitza bada ere, haren barruan zona batzuetan eraiki daiteke eta beste batzuetan ez; zona eraiki-garriak dira etxebizitza kolektiboak egin daitezkeen zonak eta tokiko sistema orokorren sareko ekipamendu publiko zonak, eta zona eraikiezinak eremu libreak, berdeguneak eta bide sarea:

a) Etxebizitza kolektiboak eraikitzeko zona (unitateko ekialdeko muga):

Segundo.- La misma Orden Foral 357/2013, considerando que las condiciones señaladas no eran sustanciales estableció que, una vez subsanadas, se elevase el expediente a la Diputación Foral sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Con fecha 23 de agosto de 2013, tuvo entrada en el Registro de esta Diputación el texto refundido del expediente.

## II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada, se comprueba que se ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,  
DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral 357/2013, de 23 de julio, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente el expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Iruña de Oca en la Unidad de Actuación R1-LS4 del Suelo Urbano Residencial de Nanclares de la Oca.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA junto con la normativa urbanística.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco”.

## ARTÍCULOS DE LA NORMATIVA MODIFICADOS

### 187.14.- R1-LS4.

187.14.1.- Ordenación:

a) Tipo de Ordenación: Impuesta.

b) Directrices de ordenación: Se trata de una Unidad de Actuación situada en la zona Sur de la Avda. Langraiz. Forma parte de un área delimitada entre la citada Avenida al norte, la calle Zallurtegui al Sur, la calle El Calero al este y la calle Los Molinos hacia el oeste.

Se plantea una zona única en donde la edificación se desarrolle con tipología de bloque abierto dando frente a la calle el Calero, que a su vez se redefine para tener un trazado más cómodo y doble sentido de circulación. El resto de la Unidad se libera a fin de conseguir un gran espacio libre en torno al estanque existente, al denominado Molino de Arriba o del Estanque, y en torno al denominado Horno de Calcinación del Yeso que ya se recoge como Bien Inmueble ya declarado como Monumento/Conjunto Monumental, de modo que puedan ser recuperados y/o rehabilitados para su puesta en valor.

Se propone una edificación residencial que contenga en planta baja los espacios privados, locales de carácter terciario, además de las viviendas permitidas en esta misma planta a fin de dotar al espacio libre público de una escala más amable. Las alturas permitidas serán de PB+II+A en toda la edificación. Las alineaciones máximas permitidas son las que aparecen en la serie de planos N06', N07' y N08'. Se realizan dos pasos entre la edificación hacia el espacio libre: uno que continúe con el espacio libre público intermedio que se crea en la Unidad de Actuación R1-LS5, y otro que busque la entrada al nuevo espacio libre público desde el cruce de la calle Zallurtegui con la calle El Calero, si bien su ubicación y dimensiones han de entenderse como sugeridos, pudiendo ser objeto de ajustes en función del diseño posterior del bloque residencial.

187.14.2.- Régimen de Usos:

Si bien el uso característico de la Unidad es el residencial, dividimos la totalidad de la Unidad en zonas edificables y zonas no edificables, quedando incluidas dentro de las primeras, las zonas destinadas a vivienda colectiva y las zonas destinadas a equipamiento público de la red de sistemas generales y locales, y dentro de las segundas, los espacios libres y zonas verdes y la red viaria:

a) Zona destinada a vivienda colectiva (Límite este de la Unidad):

a.1) Erabilerak: etxebizitzak. Etxebizitza kolektiboa. Solairu guztietan ezar daitezke: behekoa, lehenengoa, bigarrena eta atikoa.

a.2) Erabilera bateragarriak:

- Autoen gordetegiak eta trastelekuak: beheko solairuan.

- Hirugarren sektoreko erabilerak: beheko solairuan; salbuespena: bulegoak solairu guztietan ezar daitezke. Beheko solairuan ezartzeko ezinbestekoa izango da bateragarria izatea erabilera orokorrekina.

- Laguntzako ekipamendu pribatua: solairu guztietan.

a.3) Debekatutako erabilerak: gainerakoak.

b) Sistema orokorren sareko ekipamendu publikorako zona (karobia):

b.1) Erabilerak: Ekipamendu kolektibo publikoa eta berau garatzeko behar diren erabilera osagarriak. Erabilera horietan lehentasuna edukiko dute kulturaren arlokoak, zabalaldikoak, aisialdikoak eta ikuskizunekin lotutakoak, eta eraikinaren babes mailarekin eta udalerraren beharrezanekin bat datozenak ere onartuko dira.

b.2) Debekatutako erabilerak: gainerakoak.

c) Tokiko sistemen sareko ekipamendu publikorako zona (Molino de Arriba edo urmaelekoa):

c.1) Erabilerak: Ekipamendu kolektibo publikoa eta berau garatzeko behar diren erabilera osagarriak. Erabilera horietan lehentasuna edukiko dute kulturaren arlokoak, zabalaldikoak, aisialdikoak eta ikuskizunekin lotutakoak, eta eraikinaren babes mailarekin eta udalerraren beharrezanekin bat datozenak ere onartuko dira.

c.2) Debekatutako erabilerak: gainerakoak.

d) Eremu libre pribatuetarako zona (unitateko ekialdeko muga):

3,50 metroko zabalerako lur zerrenda, beheko solairuko etxebizitzekin lotua. Baldin eta azkenean beheko solairuan hirugarren sektoreko erabilerak ezartzea hautatzen bada, zona hau tokiko sistemen sareko eremu libre eta berdegune publikoen multzokoa izango da.

e) Sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko eremu libre eta berdeguneetarako zona:

d.1) Erabilerak: Eremu libre, plaza publiko lorategiduna, pasealeku arboladun eta lorategiduna.

c.2) Debekatutako erabilerak: gainerakoak.

f) Sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko bide sarea:

d.1) Erabilerak: bide sarea eta aparkaleku publikoa. Oinezkoen bidea.

c.2) Debekatutako erabilerak: gainerakoak.

187.14.3.- Kudeatzeko sistema:

1. Xedapen aldaketan eraikinen lerrokadurak eta altuerak ezarri direnez gero, jarduketa unitatea garatzeko hauek erabiliko dira: urbanizatze jarduketa programa (2/2006 Legea, 152. artikulua), birzatzitzeko espediente, urbanizatze proiektua eta eraikitze proiektua.

Aldaketan unitatearen antolamendu xehatua ezarri denez, sistema orokor berriak urbanizatze proiektuen bitartez garatuko dira.

2. Jarduteko sistema burutzapen publikoaren araubideetan ezarritakoetako bat izango da (2/2006 Legea, 141. artikulua), hain zuzen ere lankidetzako sistema (2/2006 Legea, 159. artikulua). Hala ere, urbanizatze jarduketa programa (UJP) batean zehaztu ahal izango da, bidezkoa bada, eta aldatu ere egin ahal izango da.

3. Eremua kudeatzeko onartzen den agirian berariaz zehaztu beharko da jarduketa ekonomikoki bideragarria dela eta hirigintzako kargak eta onurak jabeen artean behar bezala banatu direla.

187.14.4.- Hirigintzako parametroak:

Zona eraikigarrietan eta eraikiezinetan bete beharreko hirigintzako parametroak ezarri dira. Berariaz egindako plano topografikoaren arabera R1-LS4 unitateko guztirako azalera 9.554,15 m<sup>2</sup> da.

a) Etxebizitza kolektiboak eraikitze zona (unitateko ekialdeko muga):

a.1) Eraikigarritasuna: Planoetan finkatutako lerrokadurek eta altuerak zehazten dute. Sotoko azalera ez da kontuan hartu behar eraikitako gihieneko azalera kalkulatzeko.

a.1) Usos: Residencial. Vivienda colectiva. Podrá situarse en todas las plantas –baja, primera, segunda y ático.

a.2) Usos compatibles:

-Guardería de coches y trasteros: En planta baja.

-Usos terciarios: En planta baja, salvo los correspondientes a uso de Oficinas, que podrá situarse en todas las plantas. El uso terciario se permitirá en planta baja siempre y cuando sea compatible con el uso global.

-Equipamiento privado de tipo asistencial: En todas las plantas.

a.3) Usos prohibidos: Los restantes.

b) Zona destinada a equipamiento público de la red de sistemas generales (Horno de calcinación del yeso):

b.1) Usos: Equipamiento colectivo de titularidad pública y usos complementarios de éste para su correcto desarrollo. Dentro de aquellos se incluyen preferentemente los de tipo cultural, recreativo, ocio y espectáculo, o cualquier otro acomodable al nivel del protección de la edificación y a las necesidades del municipio.

b.2) Usos prohibidos: Los restantes.

c) Zona destinada a equipamiento público de la red de sistemas locales (Molino de Arriba o del Estanque):

c.1) Usos: Equipamiento colectivo de titularidad pública y usos complementarios de éste para su correcto desarrollo. Dentro de aquellos se incluyen preferentemente los de tipo cultural, recreativo, ocio y espectáculo, o cualquier otro acomodable al nivel del protección de la edificación y a las necesidades del municipio.

c.2) Usos prohibidos: Los restantes.

d) Zona destinada a espacios libres privados (Límite este de la Unidad):

Se plantea una franja de 3,50m de anchura vinculada a las viviendas en planta baja. Si finalmente se optara por la ubicación en planta baja de usos terciarios, esta zona pasaría engrosar la destinada a espacios libres y zonas verdes de uso público de la red de sistemas locales.

e) Zona destinada a espacios libres y zonas verdes de la red de sistemas generales y locales:

d.1) Usos: Espacio libre, plaza pública ajardinada, paseo arbolado y ajardinado.

c.2) Usos prohibidos: Los restantes.

f) Red viaria de la red de sistemas generales y locales:

d.1) Usos: Red viaria y aparcamiento público. Vial peatonal.

c.2) Usos prohibidos: Los restantes.

187.14.3- Sistema de Gestión:

1. Dado que la Modificación Puntual contempla las alineaciones y alturas de los edificios, la unidad de actuación se desarrollará mediante Programa de Actuación Urbanizadora (Artículo 152 de la Ley 2/2006), Expediente de Reparcelación, Proyecto de Urbanización y Proyecto de Edificación.

Al incluirse la ordenación pormenorizada de la unidad, los nuevos sistemas generales se desarrollarán mediante Proyecto de Urbanización.

2. El Sistema de actuación será uno de los incluidos en los regímenes de ejecución pública (Artículo 141 de la Ley 2/2006), en concreto el sistema de Cooperación (Artículo 159 de la Ley 2/2006). No obstante corresponderá concretarlo, en su caso, al Programa de Actuación Urbanizadora (P.A.U) quien, de igual forma, podrá proceder a su modificación.

3. En el documento que se apruebe para la gestión del ámbito se dejará constancia expresa tanto de la viabilidad económica de la actuación como de la correcta equidistribución de las cargas y beneficios urbanísticos entre los propietarios.

187.14.4.- Parámetros Urbanísticos:

Se establecen los parámetros urbanísticos para las diferentes zonas edificables y no edificables. Tomaremos como superficie total de la Unidad R1-LS4 9.554,15m<sup>2</sup>, obtenida del levantamiento topográfico encargado al efecto.

a) Zona destinada a vivienda colectiva (Límite este de la Unidad):

a.1) Edificabilidad: Se define mediante las alineaciones y alturas marcadas en los planos correspondientes. La superficie de planta sótano no computa a los efectos de superficie máxima edificada.

## a.2) Eraikinen ezaugarriak:

a.2.1) Lerrokadurak: Fatxadako lerrokadurak N-07' eta N-08' planoetan finkatu dira. Atikoan, atzera emandako fatxada lerrokadura ofiziala baino 3,00 metro atzerago egon behar da. Lerrokadura hauek gehienekoak dira.

a.2.2) Solairu kopurua: BS+2+A (A = atikoa). Ezin da egon sotorik ez erdisotorik, eta debekatuta dago atikoaren gainean estalki arteko solairu bizigarriak eraikitzea.

## a.2.3) Altuerak:

-Erlaitzaren gehieneko altuera 10,00 m izango da egingo den parkeko fatxadaren eta 13,00 m El Calero kaleko fatxadaren.

-Erlaitzaren gehieneko altuera fatxadaren erdian neurtu behar da.

-Erlaitzaren karela gehieneko altuera 1,20 m da.

-Beheko solairuaren altuera libre 2,50 – 4 m bitartekoa izan behar da.

-Gainerako solairuen altuera libre 2,50 – 3m bitartekoa izan behar da.

## a.2.4) Aplikatu beharreko ordenantza:

Ez dago aplikatu beharreko ordenantzarik; eraiki beharreko blokeak honi erantsitako agiri grafikoetan finkatu dira.

## a.2.5) Lotura maila:

Gehieneko lerrokadurak lotesleak dira; bi pasabideak horretara moldatu behar dira, kaletik neurtuta, baina dimentsioak etxebizitza blokearen diseinuaren arabera moldatu daitezke.

## a.2.6) Aparkaleku plazak:

Etxebizitza bakoitzeko aparkatzeko plaza bat egin behar da gutxienez. Uraren Euskal Agentziak (URA) 2013ko martxoaren 12an egindako txostenean ezarri zuen R1-LS4 jarduketa unitatean ezin zela sotorik zulatuz; hori kontuan edukita, aparkatzeko plazak kanpoan egongo dira, tokiko sistemen sarean berriaz gaitutako zonetan.

b) Sistema orokorren sareko ekipamendu publikorako zona (karobia):

Daukan babes maila kontuan hartuta ez da hirigintzako parametrorik ezarri; hala ere, jarduketetarako ondokoetan ezarritakoa aplikatuko da: 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa; 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.

Jarduketa guztiek Arabako Foru Aldundiaren berriazko baimena beharko dute.

c) Tokiko sistemen sareko ekipamendu publikorako zona (Molino de Arriba edo urmaelekoa):

Ez da ezarri hirigintzako parametrorik; hala ere, daukan babes maila kontuan hartuta jarduketetako ondokoetan ezarritakoa aplikatuko da: 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa; 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.

d) Ereku libre pribatuetarako zona (unitateko ekialdeko muga):

Zona honetan ezin da eraiki.

e) Sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko eremu libre eta berdeguneetarako zona:

Zona hau herritarren zabaldirako, aisialdirako eta atsedenerako da; horrez gainera eraikinen eta udalerrri osoaren higieena eta itxura babesteko eta bermatzeko erabiliko da. Ondoko hauek onartuko dira:

-Kirol, kultura edo zabalaldiko ekipamenduekin lotutako instalazioak eta eraikinak; guztira guztirako azaleraren ehuneko5 eraiki daiteke, eta eraikinen erlaitzen altuera 6,50 m izan daiteke gehienez.

-Elementu desmontagarriak edo behin-behinekoak eraikitzea edo instalatzea, esaterako edariak, loreak, aldizkariak eta abar saltzeko kioskoak (azalera 10 m<sup>2</sup>-koa izan dateke gehienez eta altuera 2,50 metrokoa gehienez) eta beraien zerbitzuguneak (mahaiak eta aulkiak dauden tokiak).

## a.2) Condiciones de la edificación:

a.2.1) Alineaciones: Las alineaciones de fachada son las consideradas en los planos N-07' y N-08'. En planta ático, la fachada retranqueada deberá hacerlo 3,00m respecto de la alineación oficial. Estas alineaciones tienen la consideración de máximas.

a.2.2) Número de plantas: El número máximo de plantas será de PB+2+A (A= Planta ático). No se permiten sótanos y semisótanos, y se prohíbe la construcción de entrecubiertas habitables por encima de la planta ático.

## a.2.3) Alturas:

-La altura máxima de cornisa será de 10,00m en la fachada al futuro parque y de 13,00m en la fachada a la calle El Calero.

-La altura máxima de cornisa se medirá en el centro de cada fachada.

-La altura máxima de antepecho de cornisa se fija en 1,20m.

-La altura libre de la Planta Baja estará comprendida entre 2,50 y 4m.

-La altura libre de las demás plantas estará comprendida entre 2,50 y 3m.

## a.2.4) Ordenanza de aplicación:

No se establece ordenanza de aplicación quedando impuestos los bloques a realizar en la documentación gráfica adjunta.

## a.2.5) Grado de vinculación:

Se consideran vinculantes las alineaciones máximas, debiendo mantener los dos pasos a través del mismo desde la calle, si bien sus dimensiones pueden ser objeto de ajustes en función del diseño posterior del bloque residencial.

## a.2.6) Plazas de aparcamiento:

Por cada vivienda se dispondrá al menos de una plaza de aparcamiento. Ante la exigencia de la Agencia Vasca del Agua (URA) en su informe de fecha 12 de marzo de 2013 de no excavar una planta sótano en la unidad de actuación R1-LS4, las plazas de aparcamiento se ubicarán al exterior en zonas habilitadas para ello dentro de las calificadas como red viaria de la red de sistemas locales.

b) Zona destinada a equipamiento público de la red de sistemas generales (Horno de calcinación del yeso):

Dado su nivel de protección, no se establecen parámetros urbanísticos si bien las actuaciones serán las contenidas en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco y en el Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado.

En última instancia las actuaciones deberán contar con la autorización expresa de la Diputación Foral de Álava.

c) Zona destinada a equipamiento público de la red de sistemas locales (Molino de Arriba o del Estanque):

No se establecen parámetros urbanísticos si bien las actuaciones serán las contenidas en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco y en el Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado, en función de su nivel de protección

d) Zona destinada a espacios libres privados (Límite este de la Unidad):

No se permite edificación alguna.

e) Zona destinada a espacios libres y zonas verdes de la red de sistemas generales y locales:

Es el uso relativo al recreo, esparcimiento y reposo de la colectividad, protección y aislamiento y garantía de las condiciones higiénicas y estéticas adecuadas de las edificaciones y del conjunto del municipio. En ellos se admitirán:

-Instalaciones y construcciones vinculadas al uso de equipamiento deportivo, cultural o recreativo con una ocupación máxima del 5 por ciento de la superficie total calificada, y con una altura máxima de cornisa de 6,50mt.

-Construcción o instalación de elementos desmontables o provisionales como kioscos comerciales para la expedición de bebidas, flores, revistas, etc, siempre que las construcciones no superen una superficie total de 10m<sup>2</sup> y una altura máxima de cornisa de 2,50mt y sus zonas de servicio (mesas y sillas).

-Ohiko hiri altzariak eta umeentzako jolastokiak.

-Lur gaineko aparkalekuak eta bideak.

-Lurpeko aparkalekuak (ibilgailuentzako aparkalekuak).

-Oinezkoen bideen edo egoteko tokien ondoko egitura pergo-ladunak, eta egitekoa den parkerako egokiak diren uraren gaineko pasabideak. Hauek ezin dute hartu zonako azalera guztiaren ehuneko 5 baino gehiago; gainera ezin dira atzera eman: lurzatiaren mugei atxikita egon behar dira.

-Unitateko harrizko hormak mantentzea eta berriak eraikitzea, egingo den parkearen diseinuarekin bat etorritz gero. Lurzatiaren mugei atxikita egon daitezke.

-Funtzionamendu egokirako behar diren sare eta zerbitzu publiko guztiak.

Eremu hauetatik etxerako sarbidea aurrean duten pertsonen ibilgailuak pasatu ahal izango dira, kontrolpean.

e) Sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko bide sarea:

Herritar guztiarentzako oinarritzako hiri zerbitzuak eta azpiegiturak, hain zuzen ere hiri zerbitzuen hornidurarako erabilerak eta ibilgailuen zirkulazioarekin, aparkamendurekin eta gordetegiekin lotutakoak.

Galtzaden eta espaloien dimentsioak antolamenduko planoetan ezarri dira.

Hauek egiteko ondokoetan ezarritakoa aplikatu behar da: Hirigintzako Proiektu eta Obren Diseinua eta Gauzatzaren Kalitatearen Udal Ordenantza; sektoreetako arautegiak.

Aparkatzeko plaza laukizuzena izango da eta beraren gutxieneko neurriak 2,25x4,50 izango dira.

187.14.5.- Parametro estetikoak:

Edozein material, osaera eta diseinu erabil daiteke, ez baitago horren gaineko inolako mugarik.

Udalak honen gaineko baldintzak ezar ditzake beharrezkotzat jotzen duen guztietan.

187.14.6.- Lagapenak eta urbanizazioa:

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 24. artikuluan finkatutako betebeharrak orokorrean gainera urbanizatzeko jarduketaren programaren burutzapenaren ondoriozko kargak ere egongo dira, hain zuzen ere 25.b) artikuluan lurren jabeen finkatu gabeko hiri lurzoruen inguruan ezarritakoak:

-Udalari dohain lagatzea bideetarako, parke eta lorategi publikoetarako, kirol, zabalaldi eta atsedenerako zona publikoetarako, kulturaren eta irakaskuntzaren arloetako instalazio publikoetarako eta babestutako egoitza zuzkiduretarako behar diren lurra eta haien gaineko eskubideak, eta antolamenduan ezarritako gainerako zuzkidura eta zerbitzu publikoetarako behar direnak eta jarduketak ukitzen dituen sistema orokorren sareko elementuak lortzeko edo gauzatzeko behar diren guztiak ere bai.

-Udalari dohain lagatzea erkidegoak hirigintzako jardunaren ondoriozko gainbalioetan daukan partaidetza (edo horri dagokion diru kopurua), 2/2006 Legeko 27. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz (azaroaren 28ko 11/2008 Legeak aldatua).

-Urbanizazioaren karga guztiak ordaintzea eta, behar izanez gero, jarduketa unitatearen urbanizazioa, barruko azpiegiturak eta zerbitzuak, eta konexioak eta sendotze lanak ezarritako egunerako amaitzea; horrez gainera gaur egun unitatetik kanpo dauden batzuk zabaltzea, hain zuzen ere jarduketarako beharrezkoak direnak, nahiz eta, eremu zabalagoak izanik, sistema orokorreko zatitza jo.

Jarduketa unitateko lurren jabeek beren gain hartu beharreko urbanizazio kargak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 147. artikuluan finkatu dira; salbuespena: aldaketa honen ondoriozko sistema orokor berriei dagozkien kargak ez dira lurren jabeen kontura izango. 5. eranskinean jarduketa unitateko sistema orokorren zenbatespen ekonomikoak eta kudeaketakoak zehaztu dira; horien garapena eta burutzapena ez da bereganatuko, beraien gauzapenaren bidaragarritasun ekonomikoa nolabait ziurtatzeko.

-Disposición de los elementos habituales de mobiliario urbano y juegos para niños.

-Aparcamientos en superficie y viales en superficie.

-Aparcamientos subterráneos (estacionamiento de vehículos).

-Estructuras pergoladas que acompañen los caminos peatonales o zonas estanciales, y pasos o pasarelas sobre el agua que resulten adecuadas al diseño del futuro parque. Su ocupación máxima se cifra en el 5 por ciento de la superficie total calificada, y no se contemplan retranqueos para ellas pudiendo adosarse a los límites de parcela.

-El mantenimiento de los muros de mampostería existentes en la unidad, así como la creación de otros nuevos, siempre que resulten compatibles con el diseño del futuro parque. Podrán adosarse a los límites de parcela.

-Toda aquellas redes y servicios públicos necesarios para su correcto funcionamiento.

Se permitirá el paso controlado de vehículos de los residentes cuyos accesos se localicen frente a estos espacios.

e) Red viaria de la red de sistemas generales y locales:

Es el uso relativo a los servicios básicos e infraestructuras urbanas de carácter colectivo relacionadas con el suministro de los diferentes servicios urbanos y con las actividades de comunicación, aparcamiento y guardería de vehículos.

Las dimensiones de las calzadas y aceras son las contempladas en los planos de ordenación.

Las condiciones de ejecución respetarán lo establecido por la Ordenanza Municipal de Calidad en el Diseño y Ejecución de los Proyectos y Obras de Urbanización, y por las Normativas Sectoriales.

La plaza mínima de aparcamiento corresponderá a un rectángulo de dimensiones 2,25x4,50mt.

187.14.5.- Parámetros Estéticos:

No se establece limitaciones en este sentido en cuanto a materiales, composición y diseño.

El Ayuntamiento podrá imponer condiciones en este apartado cuando lo estime oportuno.

187.14.6.- Cesiones y Urbanización:

Además de los deberes generales fijados en el artículo 24 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, las cargas resultantes de la ejecución del programa de actuación urbanizadora serán las contenidas en el artículo 25.b) sobre contenido urbanístico de la propiedad del suelo en cuanto a deberes en suelo urbano no consolidado se refiere:

-Cesión gratuita al Ayuntamiento de todo el suelo y los derechos destinados a viales, parques y jardines públicos, zonas públicas deportivas, de recreo y de expansión, instalaciones públicas culturales y docentes, dotación residencial protegida, en su caso, y de los precisos para la instalación de las demás dotaciones y los servicios públicos previstos por el planeamiento, así como de todo el suelo preciso para la ejecución de los elementos de la red de sistemas generales incluidos en la actuación a efectos de su obtención o ejecución.

-Cesión gratuita al Ayuntamiento del suelo o, en su caso, la cantidad económica correspondiente a la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística, según lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 2/2006, modificado posteriormente en la Ley 11/2008, de 28 de noviembre.

-Costeamiento de todas las cargas de urbanización y, en su caso, ejecución en plazo de las obras de urbanización del ámbito de actuación, de las infraestructuras y servicios interiores y de conexión y refuerzo, y ampliación de las existentes que, aun siendo exteriores, se adscriban a dicha actuación por resultar necesarias para la misma, y ello aunque tengan el carácter de sistema general por servir a ámbitos más amplios que el de aquella.

Las cargas de urbanización que corren a cargo de los propietarios de los terrenos comprendidos en la unidad de actuación quedan recogidas en el artículo 147 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, excluyéndose las correspondientes a los nuevos sistemas generales creados en la presente Modificación. En el anexo 5 se incorpora la previsión de las estimaciones económicas y gestión de los Sistemas Generales incluidos en la Unidad de Actuación, cuyo desarrollo y ejecución no va a ser asumida por la misma para, de alguna forma, asegurar la viabilidad económica de la realización efectiva de dichos Sistemas Generales.

Horiek guztiak bidezko solairuetan finkatu dira, kaleko lerrokadurei zein eremu libre berriei dagokienez.

N-07' planoan ezarri den bezala, eremu libre horietako asko eremu libreen tokiko sisteman sartuko dira; aldiz, Kultura sailburuaren 2011ko maiatzaren 2ko Aginduan ezarritako aldean dauden eremu libreak eremu libreen sistema orokorrean sartuko dira (agindu horretan karobiaren sailkapena ezarri da). Los Molinos kalea ere sistema orokorrean sarean egongo da (oinezkoen bidea izango da) eta gauza bera gertatuko da urmaelarekin eta berarekin lotutako eremuekin ere (eremu hauek etorbide nagusiarekin lotzen dute).

Kultura sailburuaren 2011ko maiatzaren 2ko Aginduan ezarritako mugak errespetatuta, urbanizazioak balioa emango die ondoko guztiei: goiko errotak presak "Del Piojo" esaten dioten iturritik datorren urarekin sortutako urmaelari, errotari berari (urmaelekoa ere esaten diote) eta karobiari.

Urbanizazio obrak eta eraikitza lanak kontrolpean egin behar dira, zona hau ustezko eremu arkeologikoa baita.

187.14.7.- Uraren inguruko baldintzak:

Uraren Euskal Agentziak (URA) ezarritako baldintza hauek lotesleak dira:

1. R1-LS4 jarduketa unitatean ezin da sotorik zulatu.

2. Jabari Publiko Hidraulikoan zein beren zortasun eta zaintza zonetan jarduten hasi baino lehen horiei buruzko baimen espedientea egin behar da. Espediente hori URA - Uraren Euskal Agentziaren Arro Mediterraneoaren Bulegoan tramitatu beharko da.

#### 187.22.- Langraiz Okako ondare historiko-arkitektonikoa.

a) Euskal Autonomia Erkidegoak ondarekotzat jotako edo horretarako espedientea hasitako ondasun higiezinak:

-Karobia.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu edo monumentu multzo izendapena jasotzeko proposatutako ondasun higiezinak:

-Jasokundearen eliza.

-Langraiz Okako zubia.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko udal babesa edukitzeko proposatutako ondasun higiezinak:

-Kartzelako zubia.

-El Torcoko zubia.

-Langraiz Okako zubia.

d) Sailkatutako eta inbentariatutako kultura ondareko ondasunak ezin dira eraitsi aurretik aurri adierazpena egin eta Foru Aldundiak berriazko baimena eman gabe; hori baino lehen Aldundiak Udalak esateko daukana entzun beharko du.

e) Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeko 36. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dira.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 5a.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

4760

**Abuztuaren 2ko 393/2013 FORU AGINDU**aren hutsen zuzenketa egiten duen irailaren 18ko 456/2013 Foru Agindua. Foru aginduak 2013-2014 ehiza denboraldian Kuartangoko ehiza esparru sozialean ehiza aprobetxamendua arautuko duen araudia finkatzen du.

Ingurumen eta Hirigintza Sailaren abuztuaren 2ko 393/2013 Foru Aginduz 2013-2014 ehiza denboraldian Kuartangoko ehiza esparru sozialean ehiza aprobetxamendua arautuko duen araudia onartu zen.

Todas ellas se fijan en las plantas correspondientes tanto en cuanto a alineación de calle como de nuevos espacios libres.

Tal y como queda reflejado en el plano N-07', buena parte de estos espacios libres pasarán a formar parte del Sistema Local de Espacios Libres, mientras que los espacios libres incluidos en la delimitación que establece la Orden de 2 de mayo de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Horno de Calcinación del Yeso, pasarán a formar parte del Sistema General de Espacios Libres. La calle Los Molinos pasará también a formar parte de la red de sistemas generales como vial público peatonal, y lo mismo ocurre con la propia balsa y los espacios vinculados a ella que la conectan a la avenida principal.

La urbanización pondrá en valor el estanque creado por el cubo presa del molino de arriba con el agua que proviene del manantial del Piojo, el propio Molino, también denominado del Estanque, y el Horno de Calcinación del Yeso, respetando la delimitación incluida en la Orden de 2 de mayo, de la Consejera de Cultura del Gobierno Vasco.

Las obras de urbanización y posterior edificación irán acompañadas de un control de obras al encontrarse afectadas por zona declarada de presunción arqueológica.

187.14.7.- Condicionantes en materia de aguas:

Resultan vinculantes las siguientes condiciones establecidas por la Agencia Vasca del Agua (URA):

1. No se podrá excavar una planta sótano en la Unidad de Actuación R1-LS4.

2. Todas las actuaciones, tanto en Dominio Público Hidráulico como en sus zonas de servidumbre y policía, deberán ser objeto de un expediente de autorización que deberá ser tramitado ante la Oficina de las Cuencas Mediterráneas de esta Agencia Vasca del Agua-URA.

#### 187.22.- Patrimonio Histórico-Arquitectónico en Nanclares de la Oca.

a) Bienes inmuebles declarados o incoados por la Comunidad Autónoma del País Vasco:

-Horno de calcinación de yeso.

b) Bienes inmuebles propuestos para declarar como Monumentos/Conjuntos Monumentales de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

-Iglesia de la Asunción.

-Puente de Nanclares de la Oca.

c) Bienes inmuebles propuestos para ser protegidos a nivel Municipal en la Comunidad Autónoma del País Vasco:

-Puente de la cárcel.

-Puente de El Torco.

-Molino de Nanclares de la Oca.

d) No podrá procederse al derribo de bienes culturales Calificados y de los Inventariados sin previa declaración de ruina y autorización expresa de la Diputación Foral, quien deberá conceder audiencia al Ayuntamiento.

e) Se cumplirán las condiciones previstas en el artículo 36 de la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de septiembre de 2013.- La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

SERVICIO DE MONTES

4760

**ORDEN FORAL 456/2013 de 18 de septiembre que corrige los errores apreciados en la Orden Foral 393/2013 de 2 de agosto que establece la normativa que regirá el aprovechamiento cinegético en el Coto Social de Kuartango durante la campaña cinegética 2013-2014.**

Mediante Orden Foral del Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo 393/2013 de 2 de agosto se aprobó la normativa que regirá el aprovechamiento cinegético en el Coto Social de Kuartango durante la temporada 2013 - 2014.